

Kutxabankek gazteei txartelekin atzerrian eginiko erosketen % 3 itzuliko die

- **Sustapena 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua da, eurogunetik kanpoko herrialdeetan 1.000 euro arteko erosketetan ezarriko da, irailaren 15era arte**

2024ko uztailaren 9an. Uda bete-betean dela atzerrira geroz eta bidaia gehiago egiten da eta, honela, Kutxabankek bere bezero gazteenei atzerrian txartelen bidez egindako **erosketen % 3-ko deskontua** ezarriko die **uztailaren 1etik irailaren 15era** bitartean, euroa ez den txanponetan egindakoak badira.

Itzulketen onuradun izateko aukera dute **18 eta 30 urte** bitarteko gazteek, Korner txartelak eta zordunketa edo sticker bikoitzak dituztenak. Trukean gehienez **1.000 euroko** erosketak izan beharko dute deskontua lortzeko. Bezero hauek automatikoki jasoko dute itzulketa, aurretik inon izena eman beharrik gabe.

Kutxabankek urte hasieran milioi bat bezero baino gehiagori komisioak erabat kendu eta Visa Dual kontu eta txartelen doako mantentzea ezarri ondoren iritsi da sustapen berri hau.

Baldintza hauek dauzkate **30 urtetik beherako Kutxabankeko bezero guztiek**, inolako bete beharrik gabe, eta beraz, Korner zordunketa eta kreditu bildumaren baitan doako kontuak eta txartelak dauzkate.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako erakunde liderra da. 700 bulego inguru eta jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea ditu, bai eta presentzia nabarmena ere Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko talde batekin, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea da Kutxabank, Europako ikuskatzaileen arabera.